



NAHIKO 2007-09 IKASLEEKIN SAIO BEREZIAK.

2UD: ANIZTASUNA. SAIO BEREZIA (2008ko otsaila-martxoa)

HELBURUAK ETA EDUKIAK

Aniztasuna biziarazi, saioaren bidez beste pertsona baten lekuan/buruan/bizitzan jarriz, errespetu osoz eta ondo pasaz. Pertsona horri izena (eta izana) eman, eta besteen aurrean aurkeztu (errekonozimendua eman).

Emakume eta gizonen aniztasun pertsonala onartzeko eta errespetatzeko ditugun **traba nagusienetariko bat, generoko estereotipoak**, begibistan utzi, aztertu eta alternatibak eskeini: gizon ezberdinak, emakume ezberdinak.

Makilajea, orrazkera, apainketa... inguruko **hausnarketa** bultzatu:

- Mitoak begibistan utziz: ez da emakumeen gauza soilik, gizonena ere baizik. Guztiona. Hizkuntza bat da, **hitzik gabeko hizkuntza**. Denok erabiltzen duguna. Nola eta zertarako erabiltzen dugun jakin eta erabaki behar dugu.
- Dazkan/eduki ditzaken **alderdi positiboak** aldarrikatu: higieua, garbiketa, zainketa, osasuna... nortasuna, askatasuna, estilo propioa... besteekiko jarrera, errespetoa, komunikazioa, harrera... ospakizuna, festa, alaitasuna...
- Dituen/eduki ditzaken **arrikuak** seinatu: irudi-modarekiko menpekotasuna, gaixotasuna, kalte fisiko eta psikologikoa... irudi estereotipatua, etiketak, gregarismoa... klasismoa, distantzia, mugak... estatusa, boterea...

Makilatu, orraztu, apaindu... dauzkan **osagarri afektiboak** landu, bereziki mutilek lantzen ez dituztenak hainbat gauza "femeninoak" praktikatu eta balioa eman: ukitu, igurtzi, laztandu, besarkatu, jolastu... konfiantzaz ukitzen, igurtzen eta abar egiten utzi... bestea onartu, nor bere burua onartu...

Zainketarekin lotu: norberarena eta besteena. Horren arabera izango dugu makilajearen arlo positiboak ala arriskuak. Zainketarako erabilitako makilaje-hizkuntza ala zapalketarako erabilitakoa.

HIRU ZATI		
Sarrera (denok elkarrekin): AURKEZPENA.	10 m.	15 m.
Makilaje tailerra (nesken taldea eta mutilen taldea): PERTSONEN ANIZTASUNA	60 m.	75 m.
Bateratze lana (denok elkarrekin): ONDORIOAK	20 m.	30 m.
Denetara	90 m.	120 m.

1. SARRERA (denok elkarrekin): AURKEZPENA (10-15 minutu)

SARRERA (DENOK ELKARREKIN): AURKEZPENA.	10 m.	15 m.
---	-------	-------

Hasiera emateko, saioa girotzeko eta ikasleak zentratzeko ueña da:

- **2.UD**an zer egin duten? Jolasak? Koadernoak? Zein da gai nagusia? Zer egin duzue? Zer ikasi duzue?
- Zer da **aniztasuna**? Zertan nabaritzen da? Ez soilik fisikoa, ez soilik etniko edo kulturala: nortasuna, ohiturak, bizimodua, aukerak, ahalmenak, prestakuntza, zaletasunak, lehentasunak, beharrak...
- **Jolas bat, saio bat** egingo dugu aniztasuna hobeto ulertzeko: Saioa nolakoa izango den azalduko zaie, izango dituen zatiak, zein talde egingo ditugun, nolako dinamika erabiliko den, eta abar.

2.- BIGARREN ZATIA (Nesken taldea eta mutilen taldea): PERTSONEN ANIZTASUNA (60-75 minutu)

Makilajea edo karakterizazioaren helburua **pertsona bat irudikatu eta, enpatiaz, bere lekuan ipintzea** da. Bere jazkera, orrazkera, izaera eta bizieran jartzea. Guzti horretara hurbildu eta ezagutu, errespetoz iruditatzu.

Beraz, ez da mozorrotzea edo ridikulizatzea, **ez da ihauteria** edo muturreko estereotipo egitea (nahiz sexuala, etnikoa, kulturala, adinekoa...). Baina bai **ondo pasatzeko jolas bat**, alai eta umoretsu jolastea.

Pertsona hori irudikatu, izena eman (eta izenarekin izana), eta besteen aurrean aurkeztu, besteen aurrean errekonozimendua eman. **Ez da punki bat**, edo aitona zahar bat, edo emakume bat, edo top model bat, edo... **Gorka da**, edo Jose, edo Begoña edo Vanessa edo...

MAKILAJE TAILERRA (NESKEN TALDEA ETA MUTILEN TALDEA): PERTSONEN ANIZTASUNA		
Jolasteko gidoi-fitxak: Fitxak erakutsi eta azaldu euren esanahia. Ikasle bakoitzak gidoia-fitxa bat aukeratzen du, bere pautak jarraituz makilatu eta karakterizatzeko.	5 m.	5 m.
Makilaketa/karakterizazioa: Bi talde egin, A eta B: lehendabizi A taldekoek B taldekoak makilatuko eta karakterizatuko dituzte, gero B taldekoek A taldekoak.	20 + 20 m	25 + 25 m.
Pertsonen/pertsonaien aurkezpena: Ikasle bakoitzak bere burua aurkeztuko du, beti ere bere makilaje edo karakterizazioaren arabera: "JON-IZASKUN NAIZ, 28 urte ditut, holakoa eta holakoa naiz (fisikoki, nortasuna, bizimodua...) edota horrela eta horrela bizi naiz (non, norekin, nola...)"	15 m.	20 m.
Denetara	60 m.	75 m.

Jolasteko gidoi-fitxak: Pertsona bat irudikatzeko pistak:

Fitxa bakoitzak pertsona bat bezala makilatu edota karakterizatzeko osagarri batzuk izango ditu marraztuta. Pertsona irudikatzeko pistak. Gehien bat fisikoak (itxurarekin zer ikusirik dutenak) baina ez soilik.

Esaterako, adibide modura:

AURPEGIA: <ul style="list-style-type: none"> - Belarritakoak. - Espainak margotuta. - Bibotea. - Koloretea. 	ESKUA: <ul style="list-style-type: none"> - Azkazal margotua. - Pitxiak. - Kirol eskumuturrekoa. - Eskularruak. 	ILEA: <ul style="list-style-type: none"> - Kizkurra eta handia. - Luzea eta mototza. - Motza eta gominarekin.
JANTZIAK: <ul style="list-style-type: none"> - Txapela. - Poltsa. - Fularra. - Lepokoa. 	USAINA: <ul style="list-style-type: none"> - Lurrina, perfumea. - Linimentua. - Bizar lozioa. - Krema hidratantea. 	TRESNAK/ATREZZOA: <ul style="list-style-type: none"> - Pipa. - Poltsikoko ispilua. - Telefono mugikorra. - Kalkulagailua.



3.- HIRUGARREN ZATIA (denok elkarrekin): BATERATZE-LANA (20-30 m.)

<p>BATERATZE LANA (DENOK ELKARREKIN): ONDORIOAK</p> <p>Neskek aukeratu eta erabili dituzten gidoi-fitxak eta mutilek aukeratu eta erabili dituzten gidoi-fitxak (A4 taula bete):</p> <ul style="list-style-type: none"> - Berdinak aukeratu dituzte? Zeintzuk aukeratu dituzte? Zer dute amankomunean? - Berdintsu edo antzera irudikatu dituzte neskek eta mutilek? Hau da, gidoi-fitxa bera emakumea edo gizona irudikatu dute talde bietan ala batean emakumea eta bestean gizona? Zergatik? Hau da erabilitako fitxa bera nola irudikatu dute neskek eta nola mutilek. - Desberdinak aukeratu badituzte, zeintzuk neskek eta zeintzuk mutilek? Zein da aldea? Neskek soilik neskak-emakumeak irudikatu dituzte eta mutilek soilik mutil-gizonek? Zergatik? Neskek denetatik eta mutilek ez edo alderantziz? Zergatik? <p>Ez neskek eta ez mutilek aukeratu eta erabili EZ dituzten gidoi-fitxak (A4 taula bete):</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zeintzuk? Zergatik? Zer osagai/ek bota ditu/zte atzera. Zergatik? - "Emakumeen" osagarriak zituztelako (espainak margotzekoa...)
<p>Makilatzea eta karakterizatzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Atsegina izan da? Ondo pasa dute? Gustora egon dira? Zer izan da errezena , politena, zailena: pelukeria, makilajea, pitxiak jaztea... Zergatik? - Zaila izan da? Lotsa eman die? Zerk? Zergatik?
<p>Zer da makilajea, pelukeria, eta abar? Zergatik apaintzen gara?</p> <ul style="list-style-type: none"> - Osasun kontua da? Nork bere burua zaintzeko? - Besteentzat atsegina eta erakargarria izateko? - Nortasun edota bizitza estilo bat erakusteko, aldarrikatzeko? - Ohitura bat delako eta egiten ez badugu gaizki ikusiak gaudelako? <p>Bakarrik neskak-emakumeak apaintzen dira (edota apaindu behar dute) ala mutilak-gizonak ere apaintzen dira (edota apaindu behar dute) baina beste era batera?</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zer aldea dago apaintzeko modu ezberdin horietan? Zer adierazte du emakumeen apaintzeko modua? Eta gizonena? Zeri ematen zaio garrantzia? Zergatik? - Ba al daude emakumeen erara apaintzen diren gizonak? Barregarriak dira? Zer iruditzen zaizkigu? Eta gizonen erara apaintzen diren emakumeak? Barregarriak dira? Zer iruditzen zaizkigu? - Ezin da beste modura batera izan? Nola?